



LITOTRIZIA-SAIO BATEN ONDORENERAKO ZAINTZAK ETA GOMENDIOAK

Informazio hau lagungarri izango zaizu alta eman ondoren izan ditzakezun gorabeherak behar bezala hauteman eta kudeatzeko.

- Harria zatitu ondoren, harri-zatiak gernu bidez irteten dira gorputzetik, eta litekeena da gernua kolurikoago edo gorrixkago egotea eta txiza egitean mina sentitzea. Alta ematean, urologoak antiinflamatorioak eta analgesikoak errezetatuko dizkizu, mina arintzeko edo saihesteko.
- Etxean egiten zenuen dieta bera egin, baina edan ur gehiago: egunean bizpahiru litro. Ura atsegin ez baduzu, hartu zukuak, infusioak edo saldak.
- Ibili oinez edo egin ariketa fisikoa ahal duzun guztietan —adibidez, eskailerak jaistea edo paseatzea—, grabitate-indarrari esker errazago kanporatuko baitituzu zati litiasikoak.
- Erreparatu gernuari, eta begiratu arretaz harri-zatiak azaltzen diren; hala bada, jaso itzazu, analizatzeko.
- Harri-zatiren bat agertzen bada, eraman Urologiako kontsultara, zita medikoaren egunean.
- Alta ematean, txosten mediko bat emango dizugu, eta han azalduko da zer egunetan etorri behar duzun kontsultara.
- Ez ahaztu txosten medikoa aldean eramatea Urologiako kontsultara, zure osasun-zentrorra edo, beharrezkoa bada, larrialdietara joatean.

Orduetgia: Asteleheneretik ostiralera: 8:00etatik 15:00etara
Telefonoak: Urologiako kontsulta: 945 00 75 47
Santiago egoitza / Litotrizia Unitatea 945 00 76 00 eta 945 00 7957
Txagorritxu egoitza: 945 00 70 23

Berrikusita: 2022ko apirila

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu artatzen zaituzten profesionaleri

I.O.-UROLOGIA-11